



LEGAZPIN EUSKARA INDARBERRITZEKO

AROA

Legazpin euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko marko estrategikoa (2026–2036).

Legazpi AROA plana onartu du: euskararen indarberritzerako eta euskaldunen ahalduntzerako bide-orria.



Zer egin dugu eta zertarako?

Hamar urteko ikuspegia duen plana osatu dugu euskararen erabilera handitzeko, herritarrak ahalduntzeko eta udalerriko hizkuntza-bizikidetzak justu eta inklusiboak indartzeko.

Nola egin dugu?

Prozesu parte-hartzaile bidez egin dugu, udaleko ordezkari politikoekin, teknikoekin eta herriko eragileekin elkarlanean. Legazpiko euskararen egungo egoeraren diagnostikoa oinarri hartuta, etorkizuneko erronkei modu adostuan erantzun diegu.

Legazpin euskararen ezagutza zabala bada ere, erronka handiak ditu oraindik. Testuinguru horretan, AROAk estrategia berriak abiatu nahi ditu, herritarrekin batera. AROA ez baita soilik udalaren plan bat: Legazpi osorako herri-proiektua da.

BERAZ... Nora goaz?

- Euskara udalaren agenda politikoan kokatzera, eta udal-arlo guztietan zeharkakotasunez lantzea.
- Eremituzionalaren zein sozialaren koordinazioa sustatzera.
- Euskara ardatz izanik, Legazpiko kultura-aniztasuna kudeatzera.
- Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategiak garatzera.
- Euskaldunon komunitatea indartzera.
- Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragitera.
- Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartzera eta berriak sortzea.
- Euskararen babesguneak indartzera eta berriak sortzea.
- ...

Horretarako, Legazpin euskara indarberritzeko AROA planean, erronka horiei erantzuteko ekintza zehatzak jaso ditugu.

**GEHIAGO
JAKIN NAHI?**





Marco estratégico para la revitalización del euskera y el empoderamiento de los y las euskaldunes en Legazpi (2026–2036).

Legazpi ha aprobado el plan AROA: hoja de ruta para la recuperación del euskera y el empoderamiento de las personas euskaldunes.



¿Qué hemos hecho y para qué?

Hemos elaborado un plan con una visión de diez años para aumentar el uso del euskera, empoderar a la ciudadanía y fortalecer la convivencia lingüística justa e inclusiva del municipio.

¿Cómo lo hemos hecho?

Lo hemos realizado a través de un proceso participativo, en colaboración con representantes políticos, técnicos y agentes locales. Partiendo de un diagnóstico de la situación actual del euskera en Legazpi, hemos respondido de forma consensuada a los retos del futuro.

El conocimiento del euskera en Legazpi es amplio, pero sigue teniendo grandes retos. En este contexto, AROA quiere poner en marcha nuevas estrategias con la ciudadanía. AROA no es sólo un plan municipal: es un proyecto para toda la ciudadanía de Legazpi.

Entonces, ¿adónde vamos?

- Situar el euskera en la agenda política municipal y trabajarlo de manera transversal en todos los ámbitos municipales.
- Fomentar la coordinación tanto del ámbito institucional como social.
- Gestionar la diversidad cultural de Legazpi con el euskera como eje.
- Desarrollar estrategias para asegurar la presencia del euskera en el entorno digital.
- Fortalecer la comunidad euskaldun.
- Incidir en la transmisión del euskera y de la cultura vasca.
- Potenciar las oportunidades y crear nuevas oportunidades para la enseñanza y el aprendizaje del euskera.
- Fortalecer los espacios de apoyo al euskera y crear otros nuevos.
- ...

Para responder a estos retos, hemos recogido acciones concretas en el plan de AROA.

